

## Bosgarren urtean

*Euskaldunon Egunkaria*, 1994-12-11: 2.

Badirudi lortu dugunera ustekabeen bezala iritxi garela, atzo zela lehen aldiz Durangon bildu ginenekoa EGUNKARIAren haziaz mintzatzeko. Eta ez da hala. Lau urte luze eta neketsu bete ditugu lehen euskal egunkariaren lanetan, eten gabeko bosgarren hau betetzen hasi garen arte.

Orain bost urte abiatu ginen abentura hura porrot batean joan izan balitzaigu, urte bete hauek hutsean geratu izan balira eta irabaziak gure betiko arerioaren golak bilakatu, bost eta huts erdal kazetaritzaren alde, orduan, diot, kontrarioak irabaziko zuen, betikoak, eta ez guk, galtzaile profesionalak!... Eta zergatik galdu behar dugu beti guk? Gutxi garela eta ahulak, denak gure aurka daudelakoaren, betiko aitzakia... Ez al da, gero, galtzeko ahaleginak gerauek egiten ditugulako?

Egia da, bestalde, aurka genituenak ere euskaldunak zirela.

Egiak egi, ez al dugu ezer ikasi behar?

Hain larri bilatu genuen laguntza hasieratik aurkitu izan bagenu, gaur euskaldunen helburu nagusitik, askatasunetik, hurbilago egongo ginen denok. Ez, behar bada, gure buru estimagandik hain gertu, baina bai euskal kazetaritza eta euskal mundu barruan denok kontzientzia nagusitik gertuago, eta orain, lortutakoa auzitan jartzen hasi beharrean, hemendik aurrerakoa elkarrekin gehiago egiten saiatzeko bidean jarrai, irabazten ere hasiak baikara.

Zeren eta lau urtean oztopoka egindakoa ona izan bada, datorren bostekoa aberatsagoa izatea izan bai daiteke, eta honi esker, datorren beste bostekoa luzatzeko bidean jartzeko prestatzen ariko ginen.

Gaur urtetan helduak garenok ikasi genuen geure aurrekoengandik, gerran eta ezbeharretan, abertzaletasunaren esenpla ederra. Baina geuk ez dugu, nonbait, haiek erakutsi zigutenik erakutsi, ez dugu amore ematen ikasi; eta harroegiak izan bagara, gazteak nola ikasiko dute ikusi ez dutena?, eta hau jakinik, gainera, euskaldunok ez dugula elkar ulertzea beste erremediorik.

Behartuak gaudela, munduko beste herri asko bezala, elkar ulertzea?

Dagoeneko joan direnak eta ondoren datozenak.

Denok bat gara eta.